

«Paeta zarrak»

Mirari Martiarena

O iartzuni buruz gutxi dakidala pentsatzen dut askotan. Buruan oraindik 8.000 biztanle dituela dut sartuta, horixe ikasi bainuen zortzi urterekin. Baina ez, kontuak aldatu dira eta 10.000 biztanleak aspaldi pasa genituen. Umetan ikasi genuen “Oiartzun! Gogor erantzun!” leloa eta baita “Oiartzun, paeta zarrak erantzun!” ere.

Oiartzuni eta oiartzuerari buruzko tribialak izen horixe du, “Paeta zarrak erantzun”. Aste honetan iritsi da nire eskuetara eta esan didate ez dela ma-

hai jolasa, jokoa dela lehia dagoelako tarteko. Lehia behintzat sortu du gure etxeko sukaldean. Oiartzuni buruzko 1.500 galdera bildu dituzte Oiartzuarrren Baitan egitasmoko kideek herriko hainbat adituren laguntzarekin. 1.500 galdera sei gaitan banaturik: hizkuntza; kultura; historia; baserria, natura eta ekonomia; geografia eta toponimia; eta, gizartea eta kirola.

1.500 galdera horietatik ez dakit zenbat asmatzeko gai naizen. Baina, jokatzen hasi aurretik galdera batzuk irakurri eta gehiago ziren huts egiten

nituenak asmatzen nituenak baino. Beraz, nire kontra oraingoz asko duzue irabazteko. Gure aita pedigriko oiartzuarra ote den egiaztatzen ere aritu gara. Ez dakigu mahai jokoa osatzeko lantaldean egon den hala ez, baina galdera guztiak asmatu ditu. Ez digu alferrik esan hainbeste eskola eta hainbeste kontu eta gero ez dakigula deus etxeko gauzei buruz. Bai, arrazoi du gure aitak, gutxi dakigu Oiartzungo gauzei buruz.

Eta zuek? Zenbat dakizue zuen herriari buruz? •

«Splash» eskoletan

Koldo Sagasti

P rentsaren bitartez jakin dut Gasteizko itunpeko ikastetxe eza-gun batek instalazio berriak inauguratuko dituela laster. Besteak beste; “splash” areto bat eraikiko omen dute, psikomotrizitatea uretan lantzeko; “snoezelen” gun bat, zentzumenak estimulatzeko; hareatza bat; eta arte-esparrua. Egitasmoari ginga jartzeko, gainera, Gernikako arbolaren kimu bat landatuko dute, antza, itzal handiko ikastetxe katoliko horren eremuetan. Proiektuaren aurrekontuko bi milioiak

Hezkuntza Delegaritzak hartuko ditu bere gain, albistearen arabera.

Ez dut kritikaturko lerrootan erakunde publikoen dirua eragile pribatuen eskuetara bideratzearen egokitasuna, ez dezatela pentsa bekaizkeriak itsututa idazten dudarik. Ez dut kolokan jarriko euren seme-alabentzat Administrazioak ahalbidetzen dizkien pribilegioak aprobetxatu nahi dituzten gurasoen jokaera. Ez dut salatuko; hezkuntza arloko sindikatuek salatu duten bezala; itunpeko hezkuntzak populazioaren zati bat baz-

tertzen duela arraza, erlijio, edo ekonomia irizpideen arabera; eta hala ere, finantziario publikoa jasotzen jarraitzen duela. Nire kezka bakarra da zer izapide burokratiko egin behar izan duten ikastetxe horretako arduradunek diru laguntza horren onuradun izateko, zer deialditara aurkeztu diren; izan ere, gure auzoko eskola publikoan itoginak dauzkagu konpontzeke, eta beldur naiz ez ote garen, utzikieriatatik-edo, Administrazioak barra-barra banatzen dituen sosak alferrik pasatzen uzten ari. •